

Zarena

Barregarriak gara. Eta horrexek salbatzen gaitu. Geure juzku, geure larderia, geure harrokeria guztiak urtu egiten dira argazki kamera batek arima ostu nahi digunean. Kamera ikusi orduko alderdirik onena eman nahi izaten diogu denborà gelditzeko makinari, kokotsa jasota papoa disimulatu eta buru soiltzen hasia ezkututzen saiatzen gara, harro begirutzen diogu munduari, ez nauzu menperatu oraindik, edo irri egiten diogu, adeitasunez, esker onez kasik, edo serio azaltzen gara, tramite zikin bat da hau, buka dezagun lehenbailehen, badaukat




Jira
Xabier Gantzarain

zeregin hoberik, zain gaude, etinoa da unea, onena eman behar duzu, betirako geratuko zara. Argazkilariak lagundu egin nahi izaten du batzuetan, begiratu hona, jaso burua, egin irri, eta izan nahiko zenukeena antzezten saiatzen zara zu, baina beste batzuetan ezer esan gabe lapurtzen dizute arima, abisatu gabe egiten du argiak zapart, eta zarena antzezten harrapatzen zaitu denborà gelditzeko makinak. Eta zarena ez zaizu gustatzen argazkian ikusita, hori ez zara zu, zu ederragoa zara, argalagoa, bereziagoa, ez hain erdipurdiko, ez hain besteak bezalako. Baina bai. Mundura moldatzea lortu ez duen haurra azaltzen da harrapatzen dizkiguten argazkietan.

Amerikanoak

Ez dakit ezertarako balioko duen, baina pozik irakurri dut Idahoko Estatu Gaietarako Batzordearen adierazpen instituzionala. Hemendik Amerikara itsas legoa asko daude, baina pausoak eman behar dituenak ematen ez dituenen, urrunetik heltzen zaizkigun keinuak eskertu egiten dira. Familia askok daukate senide amerikaren bat, eta odolak lotu egiten duenez, askotan izan dugu Amerika Euskal Herritik hurbil. Pentsatzen dut Idahoko legebiltzarrak eta senatuak elkarrekin adostutako adierazpena sinbolikoa izango dela askorentzat, baina hemendik hara behi-



Bira
Onintza Enbeita

nola zenbat jende joan zen jakinda, gehiago izan dadin nahi nuke. Euskal herritarrok gatazka konpondu egin nahi dugu, gure etorkizuna erabaki eta aurrera egin. Eta badirudi bizimodu hobearen bila hemendik joan zirenen ondorengoek ere gurekin bat egiten dutela sentimendu horretan. Gure auzoko gizon batek behin esan zidan «han Ameriketan» jendea ez dela guk uste dugun bezain bizkorra. Bera egona zen bolada batez Ameriketan eta ez omen da han ondo jaten, eta ohitura harrigarriak omen dituzte euskaldunen aldean. Desiatzen nago gaur iluntzean, lanetik atera, eta ardo bat kentzeko. Esan nahi diot litekeena dela amerikanoak ez izatea hain bizkorrak, baina espainiarrek baino errazago ulertu dutela euskaldunok zer nahi dugun.

Zuzendaria:

Martxelo Otamendi

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Andoni Alvarez

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea:

Bidera publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugalde kultur parkea.

Gudarien Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date:

22/03/2012

Exemplaire:

2.715

Editeur:

Euskal Editorea s.l.

Directeur de publication:

Martxelo Otamendi

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labourd:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-43526 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrroa@berria.info.

berria

Txillardegia, poliaitzindaria

Jean Luis Davant Idazlea eta euskaltzaina

Abertzalea, sozialista librea, idazle polifazetikoa, euskara batuaren aita, iparraldekoen laguna...

Txillardegik merezitako gorazarrak baditu Hegoaldean, beti ere hangoen artean, iparralderik bade-nez ere ohartu gabe. Alta bada, hemengo ere izan da bere bizitzako zati batean, eta beti atxikia egon zaigu. Haatik ezin gara beti egon bertaldekoen eskerrik ezaz plai-nuka, gure bidea markatu behar dugu geronek, eta zeren beha gaude Txillaregiren ohoratzeke hemene ere?

Lehenik idazle bezala ezagutu genuen, *Leturiaren egunkari ezkurtua* eleberri existentzialistari esker. Hor aitzindari agertu zen, euskal literaturari bide berriak irekiz, bai tematikan eta ideologia orokorrean, bai trataeran, baita euskara motan, baturako norabidean. Ondotik bertze andana bat idatzi du, genero horretan maisu emankorra egonez, baita saiolaria joria.

1958an harremanak lotu zituen iparraldeko euskaltzale batzuekin, mugimendu abertzale baten sortzera bultzatu nahian. 1961 urte hastean, muga isilka pasaturik, Hazpamen aterpetu zen, Saint Joseph kolegio katolikoan, Piarres Charritton zuzendariaren babesean. Sortu berria zen *Enbata* kazetako taldean sartzeraz lehiazarazi ninduen, eta orokorkiago, iparraldeko abertzaleen sustatzaile agertuko da beti, Telesforo Monzon bezalaxe.

1964an sozialista hautuaren egitera bultzatuko gaitu. Enbata mugimendu jaio berriak ez du talde bezala jauzi hori eginen, baina kide gehixenek Txillardegiren aholkua beretuko dute pertsonalki, eta eragin horrek bere ondorioak ukanen ditu, geroan bederen.

Bera beti egonen da sozialista libre bat, ez dogmatikoa, eta bereziki ez marxista-leninista: berak behin erran zidan bezala, protestante batzuen modura testu sakratuaren interpretazio askearen alde zegoen. Ondorioz 1967an, ETAK bere V. Biltzarrean marxismo-leninismoaren hautua egin zuelarik ofizialki, Txillardegia lagun batzuekin aldendu zitzaion, bere arrazoinak ageri batean emanez. Geroztik ere, beti egon da gizon, abertzale, sozialista libre bat, bere gogoaren jabe, berdenboran abertzale guzien boronete nazional baten aldeko militante suharra.

Halere niretzat, Txillardegiren obra nagusia, euskara batuaren sorrerakoa da, iparraldean hasia.

1963ko udazkenetik 1964ko udaraino, euskaltzale batzuek hilabetero bildu ginen horren inguruan, Kordeieren karrakako 14an, lehen solairuan, Euskal Idazkaritzak Enbataren aldamenen zeukan gelan, euskara batuari buruzko lehen urratsen finkatzeko. Hor elkarlanean genbiltzan hiru ETAKo, bi EAJKo (haietan Monzon), ni *Enbata*koa, Roger Idiart irakaslea, azken bilkuretan beste hiru apez: Andiazabal, Hiriart-Urruty eta Lafitte. Burutzeko, bilkura bat egin zen ber tokian, Baionako Biltzarra, 1964ko abuztuaren 29an eta 30ean, Lafitte gidari, mugaren bi aldeetako euskaltzale gazte andana bate-

kin. Hor onartu ziren euskara batuari buruzko lehen neurriak: grafia eta deklinabidea bereziki. Ondotik Euskaltzaindiari proposatu genizkion, eta honen gehiengoak, 1968ko udan, Arantzazuko Biltzarrean beretu zituen, Koldo Mitxelena itzal handiari esker. Gero honen gure ibilbidea markatu zuen, baina beti aitortuz Txillardegiri zor geniona. Bai, hala da: Txillardegia, euskara batuaren aita dugu, gero Mitxelena gozaita, eguzaita, aita pontekoa izango bazen ere. Euskara batua hazten ari zaigu beti, edozein izaki bizidun bezala.

Txillardegia bera ere ez zen lehenbiziko pauso hartan gelditu, etengabe aurrera egin zuen, jo aitzina! Badakigu, aita batek ez du haurra osorik egiten, handiena gero amari dagokio, baina zinezko aita beti hor dauka laguntzaile. Txillardegiri biak zor dizkiogu: lehenbiziko pindarra, hura gabe haurrik ez baita, eta gero bere lanez ama Euskaltzaindiari ekarri dion hazkurria, nahiz bien arteko ezkontza gutiz hutsegina genuen 1980an. Euskaltzain oso izateko, Patxi Altunarekin lehian gertatu baitzen, horrek baino boz gehiago bildu zuen, baina gehiengo osora heldu gabe, bi boturen faltan. Euskaltzaindiaren betoa izan zela erran zen, eta ez da egia.

Politikaren aitzakia ere aipatu zen, eta hori ere ez da egia, lekuko nago: Mitxelena eta San Martinek bereziki boza Txillardegiri eman zioten. Egia hau da: apez anitz bazegoela orduan Euskaltzaindian, eta horietarik parte on batek Aita Altunari eman ziola. Ondoko bilkuran berriz hasi behar genuen, eta hor aurkeztu bazen, seguru nago Txillardegik eramanen ziola, aitzinean egonez: bertzeek amore eman beharko zuten. Gero berantegi zen. Dena dela, ondoko euskaltzainek ez dute horretan ilustekorik, eta beti saiatu dira Txillardegiri zor diogunaren adieraztera, bereziki 2005ean Donostian egin genion omenaldian, Iker saileko 17. liburua eskainiz. Berari on egin zion, eta guri zelan ez! Goian bego Txillardegia, euskara batuaren aita.

Txillardegia, euskara batuaren aita dugu, gero Mitxelena gozaita, eguzaita, aita pontekoa izango bazen ere. Euskara batua hazten ari zaigu beti, edozein izaki bizidun bezala.